

IGALIAK URTEBIDE

“Pare bat edo iru ektarea lur ona fruta ipiñiz sendi batek bizitzeko bear dauen beste atara leiteke euretatik.”

Onetariko gauzak iñoskuzan Ramon Azpiazu jaunak, Bizkaiko Foru aldundiak Zallan daukan igaligintza ikertokiko arduradunak.

R.A.'k.—Bizitzatik bizitzara aldea dau baña mota onak ipiñi ezkerro eta jagon edadura edo zabalera orretan atara leiteke sendi batek bizitzeko bear dauen beste.

ZER'ek.—Baña lan andia emongo dau orretariko saille batek?

R.A.'k.—Ez pentsau orrenbeste danik ere. Bere sasoiak daukoz; au da, batzeko sasoiari, iñausketa edo poda sasoiari eta Udabarrian bearrezkoak ditun tratamendu batzuk egiterakoan. Baña ez da larregirik.

ZER'ek.—Mota edo klase ona esan dauskuzu baña zein da klase ona?

R.A.'k.—Bertoko sagarrak dira onenak. Naiko ondo saldu leitekez eta askotaz ere arazo gitxiago dauke gaisoe-kaz. Gu Ameriketako sagarrakaz asi giñan baña eman

dituen arazoak ikusi ondoren bertokoekaitik aldatzen gabiltz. Berrogei bat mota inguru sagar izango doguz guk emen eta beste ainbeste madari.

ZER'ek.—Eta saltzeko orduan?

R.A.'k.—Kontuan euki bear da emengo jendeak sagar garazkiñak gura izaten ditula eta onetarikoak emengoak direla. Beste alde batetik merkatuan edo azokan ia ez dau emengo sagarrik. Beraz naiko ondo saltzen da. Beste klase batzutan ez daukagu kanpokoagaz konpetitzerik: baña emengoak tratamendu gitxiago eskatzen dabenez eta bere bai sailla txikiagoak, askoz ere onuragarriagoak dira.

ZER'ek.—Zuen zeregiña emen zein da?

R.A.'k.—Ona datorzan interesatu guztiei lagundu. Au da, abonua, botika, arbola mota, iñausketea, ezititza, produkzioa, aurrerakuntza zein beste edozein arazori buruzko aolkua emon. Edozein etorri leiteke ba ona aolku-billa.

GORRINO

PAUPER PAUPERRIMUS

Goizak zure ate bako etxean jo dau mailuko ta esku betez dakartsu ozkirri orlegi ezititsu eguneko gozari. Burrundadaka joatzuz —zure odolak zearkatuz— itxaroak igari.

Argi-zukuz sakel bero larrara zara zu gero, ametsezko abereen unai, aberats guraren utsak bilduz zorrora. Adarrik bako idiak, gose adartsu lodiak topeka mendi gora.

Ostikopean, antxe zu bildur ikaraz izu; eskuan —larri ta kiki— etsipen narruzko abail alaruak jaurtika. Iñor iñoiz joko ete? Ziur dozu egi bote alperreko arrika.

Ta gosea bazkalduko, eguzkik kuku betiko eta erri eguerdian. Zugaitz bako artadian gerizpea igarra. Nork bilduko, nungo izarak zure otzaren dardarak? Au utsaren negarra!

Zure pena mengotsakin oretua dozun irin bako ogia apaldu. Gero ogera berandu izarpeko bezero. Gose-agifiñen bildurak etaezaren apurak ekarriko lo ero.

BIDAGUREN

IZENIK ETE DAUKO

Leunkiro dator euria mendiak ur asetzen Beko aldian iturria abarua poztuten. Egarriz dator bidari bide luzia eginda, joi, zelan metal ur orrek kentzen daun egarría! Olakorik ezta saltzen kristalezko ontzian, izki andiaz bere izena paperan ipiñita.

Geure errien iturria zu zara olerkaria. Abestu, idatzi ta esan sarritan olertiak, ezta biar danak batu ta saldu idaztegian. Emon, emon ur garbia doala aldape bera, berak bigurtzen daulako geure lurra emankorra, pentzeu beti orixe dala asaben ondasuna.

Iñok edaten daunian euzko gogua bertan, irikiten bere odola biotza barrenian, ta bere arima dardarez asabakaz batera, iñoz, arren, ez esan “edaten dozun ur ori nigandik urtea da”.

UTARSUS